

«Asier Altunak taberna batean galdurik aurkitu duen ardia naiz, eta baserrira itzultzeko eskatu dit. Eta itzuli egin naiz»

Hitzordua baino hogei minutu lehenago Txintxua Films ekoiztetxeko bulegoaren atarian da jada Amparo Badiola. «Amparo... egun on». «Ezagutzen al nauzu, bada?». Zigarroa kasik ahotik kendu gabe galdetu du nondik gatozen. «GARAtik». «Ez, ez. Ea nongoa zaren. Barkatuko didazu, baina ezin diot tentazioari eutsi». Asier Altunaren “Amama” filmeko amama da Badiola eta filmean argi berezi bat badu, aurrez aurre ikusita margolan batetik ateratako figura dirudi, betiereko musa; ez da nolanahikoa bizimodu lazgarria aurretik pasatzen ikusi duten gris tankerako begiek askatzen duten indarra.

Oin azpian itzali du zigarreta, Pasai San Pedrokekin mugamugan den bulegoaren pean. «Hemen jaio nintzen, 1931n», dio portu aldera begira, «baina egia esan ez dakit zergatik munduratu nintzen Pasaian». Ondarroatik etorritako familia errepublikazale batean sortu zen, Errepublika aldarrikatu zen urtean bertan, eta amak, Genovevak, «izaera indartsuko emakumea», Errepublika ize nez deitu nahi zion alabari, edo, Victoria, bestela. Aitak, «burua erabiliz», familiak errepublika baino babes handiagoa beharko zuela pentsatuta, zazpi seme-alaben artean Amparo bat izatea hobe izango zela pentsatu zuen. «Gerora ez zuen askorako balio izan baina...».

Patuan asko sinesten du. Iaz Pasaia egindako hiru egunetako bisitak ziurta dezake, bere kasuan behintzat, zoriak baduela zeresanik. Bazkari batetik atera eta euria goian behean. Aterkirik ez eta iloba bidali zuten guardasolen bila, aterpea taberna batean aurkituta. «Seme zaharrenak esan zidan gizon batek arraro begiratzen ninduela». Tabernako jabeari galdetu zion ordu hartan amama baten bila kasik etsita zebilen Asier Altunak ea emakume hura ezagutzen zuen. Eta gerturatu zitzaion, baita bere asmo-

en berri eman ere. «Pentsatu nuen, ‘edo gizon hau zeharo jo-ta dago edo nire iloben txantxa bat da’». Eskuak begiratu zizkion, aurpegiko zimurrak, irudiak hartu zituen... «Dena».

Gidoia eskuan hartuta itzuli zen Badiola etxera, Setera, Estatu frantsesera, proiektuan sartzeko inolako asmorik gabe. Etxera itzuli zenean ez zion inori gertatutakoa kontatu. «Pentsatuko zuten burua erabat joan zitzaidala. Film bat? Nire adinean? Isildu egin nintzen. Baina gerora denek bultzatu ninduten parte hartzera, baita medikuak berak ere». «Idatzi egin zidan Asierrek eta konbentzitu ninduen». Itsasoratzekeo eskatu zion eta jarri zen ontziaren gainean. «‘Ez zaizu damutuko’, esan zidan, ‘zerbaitek esaten dit zuk izan behar duzula’». Eta horrela izan zen.

ERRAZA

Emakume elegantea nahi zuen Altunak bere lanerako, eta bikaina topatu zuen. «El Boteron egin genuen hitzordua. Frantziatik etorri nintzen beraiekin biltzeko. Lasai nengoen. ‘Zer hartu nahi duzu?’, galdetu zidaten, eta nik, ‘eta zuek?’’. ‘Guk, txakolina’. ‘Ba orduan nik ere bai’. Zer uste zuten bada! Te bat hartuko zuen amama izango nintzela? Zigarroa atera eta iragazkirik gabe erretzen hasi nintzenean... orduan bai geratu ziren denak aho zabalik!».

Filmak jorratzen duen gaiak erakarri zuen gehien; «hori mundu guztian gertatu da!». Gauza «serioa» zen, komedia bat balitz ez zukeela onartuko dio. «Asierri esan nion agian ez zuela mundu guztiak ulertuko, baina zerbait berezia zeukan. Hainbeste poesia dauka... ‘Pelikula ez bada aurrera ateratzen berdin zait’, pentsatu nuen, ‘baina gazte suhar kuadrilla hori lagun badezaket, nire esku dagoen guztia egingo dut’». «Filmeko baserrian ardi ugari dago. Nik beti esaten diot Asierri: ‘Taberna

batean galdurik aurkitu duzun ardi bat naiz, eta baserrira itzultzeko eskatu didazu’. Eta itzuli egin naiz. Hori horrela da».

Hitzik ere esaten ez duen amama da Badiola filmean –«eta hobe, ez baitut euskaraz zipitzik ere egiten»–, eta “Amama” ikusi duenak jakingo du zenbaterainoko indarrez adieraz daitekeen ahoa zabaldu beharrik gabe. «Hori erraza da, bizi egiten nituen egoerak». Altunari galdetzen zion grabatzen hasi baino lehen pasarte bakoitzaren aurretik zer gertatzen zen. «Esaten zidan nahi nuen gauzetan pentsatzeko. Eta nik ezetz, jakin nahi nuela zer pasa zen aurreko eszenan, bizitzeko benetan amama hark bizi behar zuena. ‘Ez dut bada tontoaren papera egingo?! Alzheimerra al daukat? Edo gorra edo itsua al naiz?’, galdetzen nion. ‘Ez’, esaten zidan berak, ‘zu gertatzen ari dena begiratzen ari zara’. Gauzak begiratzeko ere bizi egin behar dira, bada».

Bizitako abenturak zirrara eragin dio. «Sorpresa handia izan da, bizia, ustekabekoa, sinestezina». «Amesten ari al naiz?», errepikatzen dio maiz bere buruari. «Badakizu zer den hori?», galdetzen du, «nire buruaren ikusle izan naiz». «Donostiatik pasieran aritu eta jendeak ezagutu egiten nau», argazkiak, autografoak... «Buru-a galtzeko modukoa da, baina oso lasai nago. Hurrengo urtean dena ahaztuko da, baina oraingoz...».

ZERBAIT OKERRAGOA...

Pasaia. 1937. Gerra Zibila. Borroka, sufrikarioa. 6 urte besterik ez ditu Amparo Badiolak. «Zure bizitzaz hitz egingo zeniguke?». «Zer jakin nahi duzu?». «Jakin daitekeen guztia». 78 urte daramatza Estatu frantsesean bizimodua egiten. «*Frantxuleta* esaten zidaten hemen, eta han, espainola. Beraz, non nituen nik sustraiak? Norberak bere sustraiak behar ditu. Filma egitea

AMPARO

BADIOLA

AKTOREA, AMAMA...

Bizi. Zenbat? Noraino? Nola? Zoriak ditu galderen erantzun guztiak Amparo Badiolaren kasuan, baita film batek ere.

Ariane Kamio Anduaga



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

ez da debaldekoa izan, opari bat baizik. Zerbaitegatik gertatu da. Patuak nahi izan du nire lurraldera itzultzea eta nire sustraie-tan egotea. Orain bai, hemengoa sentitzen naiz».

Santanderretik Bordelerako ontzia hartu zuen amarekin eta beste bost anai-arrebekin batera. «Zaharrena aitarekin geratu zen hemen. Nazionalistak, euskaldunak ziren». Estatu frantseseko mendebaldeko kostaldetik erdialdera eraman zituzten. Brieveko tren geltokiaz akordatzen da. Trenetik jaistean banandu zen etxekoengandik lehen aldiz. «Ama eta besteak errefuxiatuen gune batera eraman zituzten eta ni familia batekin geratu nintzen». Urduritasuna, hunkidura nabarmena da Badiolarengan urte haietako pasarteak gogortzean. Beste zigarro bat pizteko gogoa atzemanda, lasai erretzeko gonbita du, baina berak ezetz, orain oso itsusia dela eta ez dela kameraren aurrean zigarroa-

ATZERRIA

Euskal Herria 6 urterekin utzi zuen atzean. Estatu frantsesera joan zen, errefuxiatu, eta bertan eman ditu bere bizitzako 78 urte. Ez da sekula bertakoa sentitu, eta askotan hemengoa ere ez. Orain, filmari esker, sustraiak berreskuratu dituela dio, bere egiten duela beti propio sentitu izan duen iraganaren erroa.



rekin atera nahi. «Nire adinean, gainera! Zer esango dute!».

Urtebetera Euskal Herrira itzuli ziren ama eta anai-arrebak, aita gaixorik zegoela-eta. Eta bera, urrun. Gerra giroa atzetik zelatan zeukan, ordea, Badiolak. 1938an Bigarren Mundu Gerrari aurre egitea egokitu zitzaion Estatu frantsesean. «Adoptatu ninduen familia amarekin jarri zen harremanetan. Hara ere gerra etorria zela eta ea zer egingo zuten nirekin». Euskal Herrian egoerak ez zuen bada hobera egin. Gosea itzela zen, eta zama astuna zeraman amak soinean; sei anai-arreba gazte eta senarra eri. «Nengoen tokian hobeto egongo nintzela pentsatu zuen. Ez zen erabaki erraza izan berarentzat, ez pentsa. Aitak esaten zion osatu bezain laster nire bila etorriko zirela, baina hil egin zen gizajoa».

«Oso gaizki pasatu nuen». Txikitan haurrek egoera gogor-rrak bizita ere, helduek baino

errazago onartzen dituztela iritzi dio. «Baina 14-15 urterekin... Dena etorri zitzaidan gainera». Sufrimendu itzelaz ari da, «inork ezin du jakin norainokoa. Familiarik gabe, sustrairik gabe... Eta hantxe». Begi grisak ureztatu zaizkio Badiolari; bizitakoa gogoratzea ez du gustuko, min gehiegi duenaren aitor da.

Ezkondutik egin zen gerora. Bi seme izan zituen, eta ditu oraindik. «Familia senda bat osatu nahi nuen, ideala». Baina oraindik sufritu beharrean zen orduko gazte hura. Ezkondutik eta 11 urte eskasera, soilik 34 urterekin, alargundu zen. «Eta aurrera egin behar semeekin».

Zahartzarora zer den. Gurasoez asko akordatu izan da beti, une zailenetan batez ere, eta orain ere bai. «Genoveva izaera handiko emakumea zen eta oroitzen naiz aitari nola esaten zion beti egongo zela beraiena baino egoera hobeagorik. Eta aitak, erantzun: 'Genoveva, beti dago zer-

bait okerragoa'». Aitaren antz handia duela uste du berak, beti izan baitu hori presente, inon inoiz egongo dela zerbait okerragorik; «oso gogoan dut».

«Ikusten al duzu zeure burua islatuta egongo errefuxiatuengan?». «Gu geu izan ginen errefuxiatuak, oso gaizki pasa genuen, baina gaur egun askoz okerragoa da. Ito egiten dira itsasoan, eta inork ez die jaramonik egiten». Egia borobila bota du, berak ere badaki hori. «Onerako edo txarrerako», 36ko Gerratik ihesean joan zirenak nonbait hartu zituzten, harrera bat izan zuten; «ez ginen gaur egun dauden moduan egon». «Telebistan irudiak ikusten ditudanean oso gaizki pasatzen dut. Jende gaixo hori. Gu baino okerrago daude, den-dena galdu dute». Eta haurrak hondartzetan itota. «Ume hori bezala zenbat egongo dira orain? Bere anaiaz ez zuten ezer esaten, baina hura ere itota hil zen. Herrialde guztiek erreakzionatu beharko lukete, esnatu egin beharko lirake, ez al duzu uste?».

Senideen ondotik urrundu zutenekoa oso barruan du oraindik. «Dena galdu nuen, dena». Alabatzen hartu zuen familiarekin harreman ona izan du beti –hotel baten jabe ziren eta 72 urtera arte bertan lanean aritu zen–, baina ez zen bere familia. «Nahiago nuke patata bakar bat jan, edo ezer jan gabe egon, baina nireekin bizi, nire familiarekin, nire herrialdean». Dituen 84 urteetatik 78 egin ditu Estatu frantsesean, baina ez da sekula bertakoa sentitu. «Hona etortzean ere ez nintzen hemengo sentitzen. 'Norbaitek ulertzen al dit?' galdetzen nuen askotan». Gaia usu ekidin izan du Badiolak, baita etxekoekin ere. Oroitzapenei buruz idaztera bultzatzen dute haiek, baina ez du nahi. «Bizitakoa idaztea berriro bizitzea da, eta ez, hori bai ezetz, nahiz eta badakidan beti egongo dela zerbait okerragoa».

TELEFONOA

Telefonoak jo du. «Hartzerik badut?», esan du sakelakoaren bila eskua beroki beltzeko ezker poltsikoan sartu aurretik. «Bai,

noski». «Mezu bat baino ez da, deituko dute berriro».

Hizkuntza ere galdu zuen Badiolak. Frantsesa oso ondo ikasi zuen, eta, egun, gazteleraz hitz egitean, mugaz bestaldeko doinu nabaria du, baina euskara... Hura ere bizitzako sakrifizioen zakuan sartu du. Ondarroar jatorriko familia batean sortutakoa izaki, inguru euskalduna zuen izatez, guraso eta anai-arrebengandik hasita. Baina gerrateak eta bere ondorenak guztiengan izan zuen eragina. Ez zen Euskal Herritik urrundutako bakarra izan. Danimarkan eta Balear uharteetan ere izan zituen senideak. «Beste pare bat anaia arrantzaleak izan ziren; Ternuara joaten ziren, bederatzi hilabetetako bidaiak egitera. Hamabost egun egiten zituzten lurrean, eta berriz itsasora. Haur txikiak bezalakoxeak ziren etxera itzultzean; gizonkote galantak, baina lotsatiak, ez zekiten jendearekin harreman-tzen. Gaixo horiek ere ederrak pasa zituzten; 25 urtean etxean pasatako denboraren kontua egin nion behin anaiari; orotara hiru urte baino ez zituen egin».

Urteek eta bizitzak berak sakabanatutako familia izanda ere, anai-arreben arteko harremana goretsi du. Duela hogeitau urte elkartu ziren guztiak azkenekoz. «Esaten nien, 'nola gaude hain elkartuta haurtzarotik dauzkagun oroitzapen apur horiekin bakarrik?'. Horrexek elkartzen gintuen azken finean».

Zazpikote hartatik geratzen den azkena da bera, eta oso ikuspegi errealistaz begiratzen dio etorkizuntzat duen bizitza tarteari. «Haurtzaroko oroitzapenekin geratu naiz beti, baina esnatzeko ordua da eta ikustekoa amamak ere dagoeneko bere urteak badituela. Zazpi anai-arrebetatik geratzen naizen bakarra naiz. Memoriak oraindik ez dit hutsik egin, baina bihar agian... Eta orduan ez da ezer geratuko».

Patuan sinesten du, baita bere opari eta kolpeetan ere. Bizitzak aski ondo erakutsi dizkio txanponaren alde biak. Gozoa dastatzen ari da orain, euskal zinemetara atzo iritsi zen "Amama"



lanari esker. Sustraietara itzuli eta bere iraganari leunki eskutik heltzeko tenorea heldu zaio, aukera izan du horretarako eta baliatu egin du. Gustuko du Euskal Herria, gustuko du –«orain bai»– bere egiten duen ingurutik maitasuna darion zerbaitekin elkarbizitzea, apurtutako bideak konponduta ikustea eta bizitzan izan dituen une lazga-

rrienetatik irriño bat sortzea. Emakume ausarta da, ez dute bere begiek engainatzen. «Madrilen eta Bartzelonan aurkeztuko dugu filma, eta handik banoa etxera. Nekatuta nago».

«Orain egun gutxi gizonezko baten deia jaso genuen erredakzioan. Zure lehengusua zela esan zuen, filmaren bitartez jakin zuela zure berri. Ondarroa-

rra bera. Zure ama eta berea ahizpak zirela eta bere telefono zenbakia utzi zuen zurekin harremanetan jartzeko. Tori, zuretzat da».

«Etxaburu, Arrizabalaga... Bai, amaren aldekoa da. Eta ez dizu amaren izena esan? Josefa, Julia, Maria Tere, Maria Cruz... Sei ziren». «Ez zuen gehiagorik esan». «Eskerrik asko. Gertutik jarrai-

*«Gu geu izan ginen
errefuxiatuak, oso
gaizki pasa genuen,
baina gaur egun
askoz okerragoa da.
Ito egiten dira
itsasoan eta inork ez
die jaramonik
egiten»*

tuko dut». Isildu egin da une batez. «Ondarroako hilerria joan nintzen duela egun batzuk eta barrenak nahastu zizkidan bisita hark. Nire familiaren jaioterria...».

Parentesia zabalduko dut, adierazteko batez ere emakume honen gardentasunak atentzioa ematen duela. Elkarrizketako azken zatia grabatu moduan doa. Dastatu. «Nire ama Frantzian hil zen, nirekin. Bizitzako azken uneetan zegoenean esaten zidan: 'Entzuten al dituzu? Antiguako kanpaiak joka ari dira'. Hori Frantzian! Ondarroara joateak asko hunkitu nau. Ez dut hemen lehertu nahi, ez zuen aurrean, ondo egon nahi nuke. Baina Frantziara itzultzen naizenean... Han bai, han lehertuko naiz. Bost urte nituenera arte egin nuen filmean itxi nintzen, eta orain zer? Lakio bat jarri eta desagertu. Polita izango litzateke orain desagertuko banintz, hemen bizi izan dudana poz guztiarekin, arima beteta daukat. Zer geratzen zait orain?». «Bizitza». «Bizitza? Oso errealista naiz ni. Ez nuen uste hainbeste denbora biziko nintzenik. Amaierarik ez duen historiarik ez da...».